

Grabatu eta Damaskinatu Eskoletako Funtsa



Identifikazio-eremua

Erreferentzia-kodea:	ES20600AME_FEGD
Izenburua:	Grabatu eta Damaskinatu Eskoletako Funtsa
Data:	1900/ 1950
Deskripzio maila:	02 - Azpifuntsa
Bolumena:	231 negatibo beirazko plaketan. Karpetak eta koadernoak marrazkiekin, laminak kalkoekin, grabatuen eta damaskinatuen bozetoak.

Testuinguruaren eremua

Ekoizlearen izena: Grabatu eta Damaskinatu Eskola.

Historia instituzionala

1982ko uztailaren 9an, Zumaiako Zuloagaren Etxe-Museoan, Eibarko Museoaren Patronatuko kideak bildu eta Eibarko Damaskinatu Eskola sortzea erabaki zuten, atal bi izango zituena: bata, marrazki-irakaskuntza, eta bestea, damaskinatu tailerra. Proposamen hori udalari helarazi zioten eta udalak bere gauzatzat hartuta, Armeria Eskolarekin hitzarmena izenpetu ondoren, Damaskinatu Eskola hango lokal baten jartzeko erabakia hartu zuen, Armeria Eskolak horretarako laga zuen lokalean alegia. Eskolak izan zuen lehenengo irakaslea Maria Jesus Portillo Erquiaga izan zen; 1984an lehen ikasturtean, 14 pertsona matrikulatu ziren. Eskolak han segitu zuen 1995. urteraino; hartik eta urte horretan, Maria Asunción Nogués Martitegui irakasleak, Eskolaren funtsa udalari entregatu zion arte.

Artxiboaren historia

Damaskinatuko azken irakasleak, Maria Asunción Nogués Martitegui andreak, 1990eko apirilean, Funts hori, Armeria Eskolatik atera zuen eta 1995ean, Eibarko udalari entregatu zion, hain zuzen ere Ego Ibarra batzordearen idazkariari; eta horrek udal artxiboaren esku utzi zuen 1995ean bertan. Orain arte ez da horren inguruko deskribapen lanik egin.



Sarrerari buruzko datuak Eibarko udalari, 1995. urtean, Udal Damaskinatu Eskolako irakasleak entregatu zion funtsa eskola betiko itxi zenean.

Edukiaren irismena eta egitura

Garrantzia eta edukia Damaskinatu-lanen argazki-negatiboak daude: eskumuturrekoak, paper labana edo gutun-irekitzekoak, dagak, kaxak, zigarreta kutxatila, brotxeak, mahuka-bikiak, belarritakoak, medailak, estilografikoak, erlojuak, dortokak, matxinsaltoak, poltsa-heldulekua, bastoi-kirtenak. Horiez gain, grabatuen bozetoak eta marrazkiak daude.

Erabilera eta sarbidea: Baldintzak

Eskuratzeko baldintzak Mugatua

Erreproduzitzeko baldintzak Jatorrizkoen erreprodukzioa mugatua.

Ezaugarri fisikoak eta betekizun teknikoak Beirazko euskarria duten 23 negatibo apurtu daude Plaka batzuk emultsio-galerak eta barreiatzeak dituzte

Lotutako dokumentazioaren eremua

Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokalekua.

Eibarko Udal Artxiboa.

Argitalpenei buruzko oharra

. - CELAYA, PEDRO; LARRAÑAGA, RAMIRO y SAN MARTIN, JUAN: "El Damasquinado en Eibar". Patronato del Museo de Eibar. 1981.

. - LARRAÑAGA, RAMIRO; MOGROBEJO, ENDIKA y OTROS: "Los Zuloaga. Dinastía de Artistas Vascos". Ed. Ramón Suarez Zuloaga. Museo Zuloaga. Zumaia. 1988.

.- LARRAÑAGA, RAMIRO, El grabado en Eibar: nuestros grabadores. Eibarko Udala, 1996

Deskribapen Kontrola

Artxibozainaren oharra

Yolanda Ruiz Urbón artxibariak egindako deskripzioa udal dokumentazioa iturritzat hartuta

Arauak

ISAD(G): Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra, 2000

Deskribapen-data

2008-04-07

